

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2025eko urriaren 7ko ohiko bilkuran onetsitako ebazpenen laburpena

— **Erabakiak:**

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

564/2025 Erabakia, urriaren 7koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea María José Fernández Alonso Funtzio Publikoko zuzendari kargutik kentzea.

565/2025 Erabakia, urriaren 7koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Koldo Mikel Ruilope González Funtzio Publikoko zuzendari izendatzea.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

566/2025 Erabakia, urriaren 7koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea konpromiso kreditua aldatzeko M_S04/2025/0000000009 espedienteari, 601.900,00 euroko zenbatekoan, funtsez hornitzeko "Ogasunaren eraldaketa digitala AKGSA. EGEF. AKK" partida, 2026. urtean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak hala eskatuta.

567/2025 Erabakia, urriaren 7koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea M_S01/2025/0000000020 kreditu gaitzearen espedientea, 5.223.820,00 euroko zenbatekoarekin, "Lakua egoitza" izeneko partida funtsez hornitzeko, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak hala eskatuta.

BERDINTASUNA, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

568/2025 Erabakia, urriaren 7koa, Foru Gobernu Kontseiluarena Onestea Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen tokiko edo eskualdeko euskarazko komunikazio proiektuak finkatu, garatu eta normalizatzeko dirulaguntzen deialdia 2025eko ekitaldirako.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

569/2025 Erabakia, urriaren 7koa, Foru Gobernu Kontseiluarena Onestea Comunica Media-trader SLU, Nacidos Niños SL eta Esa Sports Branded Content SL enpresek eratutako aldi baterako enpresa elkarteari adjudikatzea ikus-entzunezkoen industria sustatzearen eremuan garatzen dituen jardueren hedapen estrategiko eta operatiborako laguntza kontratua, 88.786,17 euroan (BEZa barne), eta 24 hilabeteko gauzatze epearekin.

570/2025 Erabakia, urriaren 7koa, Foru Gobernu Kontseiluarena Onespena ematea Recursos Naturales SL aholkularitzari adjudikatzeari Arabako Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Behatokiaren figura eratu eta ezartzeko laguntza teknikoaren zerbitzuaren kontratua, 219.978,00 euroko zenbatekoan (BEZa barne) eta hiru urteko gauatzeko epearekin.

571/2025 Erabakia, urriaren 7koa, Foru Gobernu Kontseiluarena Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak kudeatutako instalazioetatik datozen hondakin arriskutsuak kudeatzeko eta garraiatzeko zerbitzuaren kontratua aldatzeari.

572/2025 Erabakia, urriaren 7koa, Foru Gobernu Kontseiluarena Onespena ematea Arabako garbiguneen sarea kudeatzeko zerbitzuaren 1, 2, 4 eta 5 sorten kontratuen behin betiko likidazioari, bai eta behin betiko bermeak itzultzeari ere.

GIZARTE POLITIKEN SAILA

573/2025 Erabakia, urriaren 7koa, Foru Gobernu Kontseiluarena Onespena ematea Arratzua-Ubarrundian dagoen laguntza zentroa egokitzeko obra kontratua likidatzeari, zeina Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsen finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan egin baitzen, bai eta behin betiko bermea itzultzeari ere.

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

574/2025 Erabakia, urriaren 7koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea prozedura ireki bidez kontratatzeari "A-124 errepidea 57,00 kilometrotik 60,50 kilometrora, Samaniego eta Leza artean (Araba), egokitzeko eraikitze proiektua idazteko zerbitzua", lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 240.548,00 eurokoa duena (BEZa barne), eta obrak gauzatzeko hamabost hilabeteko epea.

NEKAZARITZAREN SAILA

575/2025 Erabakia, urriaren 7koa, Foru Gobernu Kontseiluarena Onestea Arabako Lurralde Historikoko landa bideak mantentzeko proiektuaren obra kontratuaren adjudikazioa (1 sorta: Obras Públicas Onaindía, SA; 2 sorta: Guinaldura, SL; 3 sorta: Promociones y Pavimentaciones Balgorza, SA), gehieneko 450.000,00 euroko aurrekontuarekin, BEZa barne.

576/2025 Erabakia, urriaren 7koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 30eko 562/2025 Erabakia aldatzea.

KULTURA ETA KIROL SAILA

577/2025 Erabakia, urriaren 7koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Baiespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 17ko 360/2025 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoari (Esp.: 01177-2025-13).

578/2025 Erabakia, urriaren 7koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Baiespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 17ko 360/2025 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoari (Esp.: 25/1177-40).